

## BIHOTZA UHINETAN, UHINAK BIHOTZEAN

Enma Arestegui, 13 urte

*Hazparne*

Bere malkoak itsasoa bezain gaziak izan ziren,  
Luzaz begiratu zuenean, emeki-emeki, itsasont-  
zia urruntzen;

Bere zapi xuri ttipia astindu zuen,  
Maite zituen bi gizonak ez bazuten ere ikusten.

Zortzi ontzi urrundu ziren harro, itsasoan,  
Baina nerabe politak "Izar-Balea" atxiki zuen  
gogoan.

Aita eta ezkongaiak balea ihizira zitzaizkion joan,  
Biek utziz muxu bana bere bisaia goxoan.

Egunero neska gaztea igaiten da mendi tonto-  
rrera,

Olatuen ur lasai eta isila begiztatzera;

Bitartean haizeak hitz goxoak xuxurlatzen dizkio  
belarrira:

"Berriz etorriko gira, berriz etorriko gira!"

Lau primadera pasatu dira marinelen abiatzetik,  
Hogei urtetan emaztettoa ederrena da ederren  
artetik.

Euri, elur edo eguzki, goiz guziz talaian da xutik,  
Itsasontziren bat ikusten duenentz hodeien azpi-  
tik.

Aukera anitz ukan arren ez da ezkondu,  
Aspaldi joan zen balea-ihiztaria bihotzean baitu;  
Bere ezpaineak egunero uhinetarantz zuten ahos-  
katu:

“Laster etxeratu, laster etxeratu!”

Denbora badoa, erien artean harea bezala.  
Emazte ederrak eten gabe behatzen du ur bare  
zabala.

Haren begi ilunetan irakur liteke tristura sakon  
isila;

Atxikiz, halere, maitea berrikusteko esperantza  
argala.

Denborarekin, arrantzale gehienak dira itzuli,  
Horrek duelarik herrixkako poza piztu edo itzali.  
Emazte zogiak ontzien artean ez du “Izar-Balea”  
ikusi,

Orduan, hondartzan jarririk, zaizkio malko dir-  
diratsuak isuri.

Emaztea denboraren joanaz atso bilakatuta,  
Ileak bitsa bezain xuri, mugimenduetan uraren  
dardara;

Gaztea zelarik bezala, zeruertez urrunean du  
begirada.

Baina poliki-poliki, esperantzaz beteriko bizia...  
itzaltzen ari da.